

Foru Aginduak

INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

5018

51/2011 FORU AGINDUA, abuztuaren 30ekoa. Honen bidez, behin betiko onartzen da Samaniegoko udalerriko planeamenduko arau subsidiarioen aldaketa puntualari buruzko espedientea; hain zuzen ere, Las Eras eta Buencerrada kaleetako hiri lurzorua handitzeari buruzkoa.

AURREKARIAK

Lehenengoa.- Toki Administrazioaren eta Lurralde Orearen Saileko diputatuaren urriaren 23ko 596/2009 Foru Aginduaren bidez, eten egin zen espediente horren behin betiko onarpena, eta beste espediente bat izapidetu behar izan zen, kale horietako lurzorua definitu eta hura hiri lurzoru edo finkatu gabeko hiri lurzoru bihurtzeko; baita hori lortzeko beharrezko baldintzak Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legeak ezarritakoaren arabera betetzen zirela egiaztatzeko ere.

Bigarrena.- Espedientea behin betiko onartzeko, alde batetik hainbat baldintza bete behar ziren, ingurumena babestu eta zuzentzeari, jabeak nortzuk ziren adierazteari, edo eragindako finken gaineko benetako eskubideen titularrak zein ziren jasotzeari buruz; eta bestetik, agiri grafikoen eta idatzizkoen edukia izapidetu, eta hura garatu eta kudeatzeko beharrezko tresnak ezarri behar ziren.

Hirugarrena.- Samaniegoko Udalak, 2011ko ekainaren 17ko aparteko bilkuran, funtsezko baldintza horiek jasotzen zituen agiria onartu zuen; baita espedientea berriz ere hilabetez jendaurrean jartzea erabaki ere, eta horretarako, iragarki bana jarri zuen 2011ko ekainaren 27ko ALHAOn (76. zk.), 2011ko ekainaren 21eko Diario de Noticias de Álava egunkarian, eta udalaren iragarki taulan.

Laugarrena.- Espedientea jendaurrean jartzeko aldi horretan inork ez zuen alegaziorik aurkeztu; beraz, espedientea onartuzat jo zuen udalak, eta ez zuen erabakirik hartzeko premiarik ikusi horretarako.

Bosgarrena.- 2011ko abuztuaren 1ean, espedientea bidali zion Samaniegoko Udalak aldundiari, behin betiko onar zezan.

OINARRIAK

Udalak aurkezturiko agiriak aztertuta, egiaztatu da eteteari buruzko foru aginduak ezarritako baldintzak bete direla.

Horregatik, eta dagozkidan eskumenez baliatuz,

XEDATU DUT

Lehenengoa.- Behin betiko onartzea Samaniegoko udalerriko planeamenduko arau subsidiarioen aldaketa puntualari buruzko espedientea; hain zuzen ere, Las Eras eta Buencerrada kaleetako hiri lurzorua handitzeari buruzkoa, behin Toki Administrazioaren eta Lurralde Orearen Saileko diputatuaren urriaren 23ko 596/2009 Foru Aginduak, espedientearen behin betiko onarpena eten zuenak, ezarritako baldintzak bete direla ikusi ondoren.

Bigarrena.- Ebazpen hau ALHAOn argitaratzea.

Hirugarrena.- Aurreko ebazpenak amaiera ematen dio administrazio bideari. Haren aurka ondoko errekurtsuetako edozein aurkeztu ahal izango dute partikularrek, beren interesak aldeztuko bidezkotzat jotzen duten beste edozein neurri hartzea eragotzi gabe:

a) Zuzenean, administrazioarekiko auzi errekurtsua, bi hilabeteko epean, egintza jakinarazi edo argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera kontatuta, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren jurisdikzio horretako sailean.

b) Nahi izanez gero, eta aipatutako errekurtsua baino lehenago, interesdunek berraztertzeko errekurtsua aurkeztu ahaliko dute, eta beste administrazio batzuek, errekerimendua, ebazpena eman duen organo berean. Horretarako hilabeteko epea egongo da, ebazpena jakinarazi edo argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Gasteiz, 2011ko abuztuaren 30a.- Ingurumen eta Hirigintza Saileko diputatua, MARTA RUIZ CERRILLO.

Órdenes Forales

DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE Y URBANISMO

5018

ORDEN FORAL 51/2011, de 30 de agosto, aprobación definitiva del expediente de modificación puntual de las Normas Subsidiarias de Planeamiento del municipio de Samaniego, referida a la ampliación del suelo urbano en las calles Las Eras y Buencerrada.

ANTECEDENTES

Primero.- Mediante Orden Foral nº 596/2009, de 23 de octubre, del Diputado de Administración Local y Equilibrio Territorial, se suspendió la aprobación definitiva del expediente de referencia, debiéndose tramitar un nuevo expediente en el que se definiera y diera forma a su transformación en suelo urbanizable o suelo urbano no consolidado y se acreditaran las condiciones necesarias para ello según lo señalado en la Ley 2/2006, de Suelo y Urbanismo.

Segundo.- Dicha aprobación definitiva establecía el cumplimiento de una serie de condiciones relativas a medidas de protección y corrección ambiental, identidad de los propietarios o titulares de derechos reales sobre las fincas afectadas, y diligenciación del contenido de los documentos gráficos y escritos, así como el establecimiento de los necesarios instrumentos para su desarrollo y gestión.

Tercero.- El Ayuntamiento de Samaniego procedió en sesión extraordinaria el día 17 de junio de 2011 a la aprobación del documento conteniendo las condiciones sustanciales apuntadas y acordando someter el expediente a nueva información pública durante el plazo de un mes, hecho que fue practicado mediante anuncio en el BOTHA nº 76, de 27 de junio de 2011, en el periódico Diario de Noticias de Álava, de 21 de junio de 2011, y en el tablón de anuncios del Ayuntamiento.

Cuarto.- Durante el periodo de la nueva información pública no fue presentada alegación alguna, por lo que el Ayuntamiento entendió aprobado el expediente sin necesidad de adoptar nuevo acuerdo.

Quinto.- Con fecha 1 de agosto de 2011, el Ayuntamiento de Samaniego ha remitido a la Diputación el expediente a fin de que sea aprobado definitivamente.

FUNDAMENTOS

Analizada la documentación aportada se comprueba que se ha dado cumplimiento a las condiciones impuestas en la Orden Foral de suspensión.

En su virtud, haciendo uso de las facultades que me competen,

DISPONGO

Primero.- Aprobar definitivamente el expediente de modificación puntual de las Normas Subsidiarias de Planeamiento del municipio de Samaniego, referida a la ampliación del suelo urbano en las calles Las Eras y Buencerrada, una vez cumplidas las condiciones impuestas en la Orden Foral nº 596/2009, de 23 de octubre, del Diputado de Administración Local y Equilibrio Territorial, por la que se suspendió la aprobación definitiva del expediente.

Segundo.- Publicar la presente resolución en el BOTHA.

Tercero.- Contra la anterior resolución, que pone fin a la vía administrativa, podrán interponer los particulares cualquiera de los siguientes recursos, sin perjuicio de cualquier otra medida que estimen procedente en defensa de sus intereses:

a) Directamente, el recurso contencioso-administrativo en el plazo de dos meses a contar del día siguiente al de la notificación o publicación del acto, ante la Sala de dicha Jurisdicción del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco.

b) Potestativamente y, con carácter previo al recurso citado, recurso de reposición por los interesados o requerimiento por otras Administraciones, ante el mismo órgano que ha dictado la resolución, en el plazo de un mes a contar del día siguiente al de la notificación o publicación de la misma.

Vitoria-Gasteiz, a 30 de agosto de 2011.- La diputada de Medio Ambiente y Urbanismo, MARTA RUIZ CERRILLO.

2 poligonoko 132 lurzatiari aplikatu beharreko zehaztapenak

Saillkapena: Hiri lurzorua - Finkatua

Kalifikazioa: 2. mailako bizitegitarako erabilera – Bakartutako area barreiatuak

(Testu bateratua: Ordenantzak: Hirigintzako arauak. IX. titulua. 209. artikulua. Hirigintza fitxa, 116. or.)

Garapena: lurzatiaren aurrealdeko urbanizazioa barne hartzen duen eraikuntza proiektua; erabilera eta jabari publikoko bide sarea doan lagatzea.

5 poligonoko 474 eta 528 lurzatiei aplikatu beharreko zehaztapenak (Buencerrada kalea)

Saillkapena: Hiri lurzorua – finkatu gabea

Kalifikazioa: 2. mailako bizitegitarako erabilera – Bakartutako area barreiatuak

(Testu bateratua: Ordenantzak. Hirigintzako arauak. IX. titulua. 209. artikulua. Hirigintza fitxa, 116. or.)

Garapena: UE5 egikaritze unitate berria mugatzea eta garatzea

UE5 EGIKARITZE UNITATEA - BUENCERRADA

Azalpena: Buencerrada kaleko hiri lurzorua handitzetik sortutako area berria, Samaniegoko herrigunearen iparraldean.

Mugak: "Hiri lurzoruaren erabilera" izeneko 5. planoan adierazitakoak. Hauexek ditu barnean: titulartasun pribatuko 5 poligonoko 474 eta 528 lurzatiak, eta erabilera eta jabari publikoko bide sarea.

Azalera: 3.936 m² (gutxi gorabehera)

Kalifikazioa: 2. graduko bizitegitarako hiri lurzorua:

Garapen proposamena: Hiri lurzorua handitzea, egikaritze unitate bat garatzearen bidez. Barne Erreformako Plan Berezia (BEPB), berriro lurzatiatzeko proiektua, urbanizazio proiektua eta eraikuntza proiektuak onartzea.

Xehetasuneko azterlanaren eta urbanizazio osagarriaren erakuntza proiektuen bidez garatu ahal izango da, eta ez da zertan BEPBrik izan, baldin eta ondoko hauek betetzen badira:

- Arau subsidiarioetan jasoriko antolamendua nabarmen errespetatzea. Xehetasuneko azterlana idaztearekin egokituko dira betiere arau subsidiarioak.

- Jabe bakarra izatea area guztian; bestela, hitzarmen proiektua edo berriro lurzatiatzekoa onartzea, edo berriro lurzatiatzeko nahikoa adostasun izatea.

- Nahikoa berme eratzea -Udalak egoki irizitako moduan-, urbanizazioa behar bezala eta osorik gauzatzeko, eta jabari eta erabilera publikokotzat kalifikaturiko lurzorua benetan lagatzeko. Erabilera eta jabari publikokotzat kalifikaturiko lurzoru guztia doan laga beharko da, behin urbanizatu ondoren.

Jarduketa sistema: Lankidetzeta edo hitzarmena.

Komunikazioen tokiko sistema: 500 m² (gutxi gorabehera)

Jabari pribatuko area: 3.436 m² (gutxi gorabehera)

Urbanizazioa: Buencerrada kalearen aurrealdean dagoen bideen tokiko sistema eta lurzatiara sartzeko bideak.

Aprobetxamenduaren lagapena: indarreko legeek ezarritakoa.

Dotazioen lagapena: indarreko legeek ezarritakoa.

Determinaciones que resultan de aplicación a la parcela 132 del polígono 2

Clasificación: Suelo Urbano - Consolidado

Calificación: Uso Residencial Grado 2 – Áreas Diseminadas Aisladas

(Texto Refundido: Ordenanzas. Normas Urbanísticas. Título IX. Artículo 209. Ficha Urbanística, pág. 116)

Desarrollo: Proyecto de Edificación que incluya la urbanización del frente de la parcela, cesión gratuita de red viaria de uso y dominio público.

Determinaciones que resultan de aplicación a las parcelas 474 y 528 del polígono 5 (calle Buencerrada)

Clasificación: Suelo Urbano – No Consolidado

Calificación: Uso Residencial Grado 2 – Áreas Diseminadas Aisladas

(Texto Refundido: Ordenanzas. Normas Urbanísticas. Título IX. Artículo 209. Ficha Urbanística, pág. 116)

Desarrollo: Delimitación y desarrollo de la nueva Unidad de Ejecución U.E.5.

UNIDAD DE EJECUCIÓN U.E.5. - BUENCERRADA

Descripción: Nuevo área resultante de la ampliación del Suelo Urbano en la calle Buencerrada, al Norte del núcleo urbano de Samaniego.

Delimitación: La señalada en el Plano nº 5 "Usos de Suelo Urbano". Incluye las parcelas 474 y 528 del polígono 5, de titularidad privada, y la red de viaria anexa de uso y dominio público.

Superficie: 3.936 m² (indicativa)

Calificación: Suelo Urbano Residencial Grado 2.

Propuesta de desarrollo: Ampliación del Suelo Urbano mediante el desarrollo de una Unidad de Ejecución. Aprobación de Plan Especial de Reforma Interior (PERI), Proyecto de Reparcelación y Proyecto de Urbanización, y Proyectos de Edificación.

Podrá desarrollarse mediante Estudio de Detalle y Proyectos de Edificación con urbanización complementaria, sin necesidad de PERI, siempre que se cumplan los siguientes requisitos:

- Que se respete sensiblemente la ordenación señalada en las Normas Subsidiarias que, en cualquier caso, se ajustará mediante la redacción de un Estudio de Detalle.

- Existencia, en el conjunto del área, de un único propietario o aprobación de un Proyecto de Concertación o Reparcelación, o acuerdo reparcelatorio suficiente.

- Constitución, en forma que el Ayuntamiento estime oportuna, de las garantías suficientes que aseguren la correcta y completa ejecución de la urbanización y la efectiva cesión del suelo calificado como de dominio y uso público. Todo el suelo calificado como de uso y dominio público deberá ser cedido gratuitamente una vez urbanizado.

Sistema de Actuación: Cooperación o Concertación.

Sistema Local Comunicaciones: 500 m² (indicativo)

Área de Dominio Privado: 3.436 m² (indicativo)

Urbanización: Sistema Local Viario del frente de la calle Buencerrada y viales de acceso a las parcelas resultantes.

Cesión de Aprovechamiento: Las establecidas por la legalidad vigente.

Cesión de Dotaciones: Las establecidas por la legalidad vigente.

Iragarkiak

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

OGASUN ZUZENDARITZA

Zuzeneko Zergen Zerbitzua - Errenta eta Ondare Atala

5017

Administrazio egintzak jakinaraztea: PFEZ

Administrazioari ez dagozkion arazoengatik jakinarazpena egitea ezinezko izan da. Hortaz, Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrek 108. artikuluan xedatutakoaren ildotik, aipa-

Anuncios

DEPARTAMENTO DE HACIENDA, FINANZAS Y PRESUPUESTOS

DIRECCIÓN DE HACIENDA

Servicio de Tributos Directos-Sección de Renta y Patrimonio

5017

Notificaciones actos administrativos IRPF

En virtud de lo dispuesto en el artículo 108 de la Norma Foral General Tributaria de Álava, (Norma Foral 6/2005, de 28 de febrero) no siendo posible practicar la notificación por causas no imputables a la